

Artetxe, begiramenez

Joxe Ramon ZUBIMENDI

Ez nuen ezagutu Artetxe. Ustez, ez diot ezer zor; ezpada hark euskalgintzan egin zuen lanari darion argi iraunkorra: Artetxeren itzarlari darion argi iraunkorra. Eta argi horrexek eragin zidan, ez bestek, gizalegezko nire eginbeharra betetzera: alegia, Joxe Artetxeri buruzko artikuluak idaztera, 1995ean, eta haren biografia idaztera handik urte gutxira.

Izan ere, 1995ean, izenik esan nahi ez dudan euskal hiztegi batean, Artetxeri buruzko azalpen honekin egin bainuen topo, us-tekabeen:

«Artetxe Aranburu, Jose. Idazle gipuzkoarra (Azpeitia, 1906 – Donostia, 1971). Biografia, saiakera eta kazetaritza-lanak argitaratzeaz gain, *Egan* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan euskaraz idatzitako artikulu batzuk ere kaleratu zituen. Bibliotekari probintziala zelarik Patxi Goenagaren *Agurea ta atsoa* liburuaren hitzaurrea prestatu zuen. Bere lanik gehienak gaztelaniaz idatzi zituen. Francoren garaian ospea lortu zuen; ez zen frankista erabat, baina kontrako adierazpenik ere ez zuen egin. Gerra garaiko gertaerak azalduz *El abrazo de los muertos* liburuia idatzi zuen (1970).»

Artetxe zenak euskalgintzan egin zuenerako, oso motza da azalpen hori; oso motza, eta ez luze-laburrean bakarrik. Horrez gainera, pellokeria dirudi Francoren garaian ospea lortu zuela esateak. Noiz lortu behar zuen, bestela, garai hartakoa izanik? Koldo Mitxelena, Gabriel Arestik, Xalbador bertsolariak, Uztapidek eta abarrek ere Francoren garaian lortu zuten ospea. Eta zer?

Baina pellokeria itxurako hori, ail, zitalkeriaren atarikoa izaki, ordea! Zitala iruditzen baitzait hiztegiak dakarren beste hau: <ez zen frankista erabat, baina kontrako adierazpenik ere ez zuen egin>.

Gezur beltza dirudi horrek, eta gezurra da; Artetxe zenaren egunerokoa irakurri besterik ez dago. Entzun:

«Zarautz, 1940.— Ate joka nabil, deika. Ate guztiak itxi egiten dira. Galtzaile gisa hots egiten baitut. Horixe bainaiz, izan eta izango: galtzailea.»

Herriko jendeari —presoei, ezergabetuei, gose zirenei— lagundu asmoz zebilen, gainera, ate joka. Horixe bai zela frankista izateko era bitxia! Euskal Herriak pozik hartuko zituzkeen Artetxe bezalakoak, dozenan hamaika! Baita neuk ere! Gizona gizon izatea baita kontua; eta antifrankista izateak ez zuen bermatzen hori, eta abertzale izate hutsak ere ez, gaur egun ederki asko dakigunez.

Eta zertara dator, bestalde, idazle oparo horren biografia egitera-koan, liburu bakarra aipatu, beste hogeita lauak isildu eta ideologia kontuak nahastakatzea? Martxa kaxkarra, euskal kulturarentzat! Gainera, izenik esan nahi ez dudan euskal hiztegi horretako azalpenak beste hainbat oker ere baditu, eta oker larri samarrak:

- Batetik, *Agurea ta atsoa* delakoa oker dago: liburuaren izenburua, egiazko titulua, *Agurea eta itxasoa* da.
- Liburu horren egilea ez da Patxi Goenaga; baizik eta Ernest Hemingway, 1954an Literaturako Nobel saria irabazi zuena.
- Goenaga izan genuen, bai, liburu hori euskaratu ziguna; baina ez Patxi Goenaga euskaltzaina (mutil kozkorra, noski, garai hartan), baizik Anjel Goenaga delako apaiz zegamarra, hiztegi horretan bertan ageri denez.

Zorionez, lagun egokia aurkitu nuen orduan Artetxeren berri emateko: *Auñamendi* delako entziklopedia mardula; eta *Auñamendi*-tik hartu eta egokitu nituen euskarara ondorengo jakingarri guztiok. Entzun:

«Azpeitiarra zen Artetxe, eta asko ikasia. Ez zen, ordea, unibertsitatean ibilitakoa, eta batxilergorik ere ez zuen egin; hama-lau urteko mutikoa zelarik, halabeharrez, eskola utzi eta lanean hasi baitzen. Horrek esan nahi du bere aldetik ikasi zuela zekien guztia, inongo irakaslerengana jo gabe. Ez gutxi ikasi ere; Arte-

txe autodidakta hark bi dozenatik gora liburu idatzi baitzituen, eta milaka artikulua ere bai, erdaraz nahiz euskaraz.»

Euskaraz, *Zeruko Argiaren* ia sortze beretik idatzi zuen bertan, astero-astero. Bai euskara egoki askoa erabili ere: garbizalekeriarik eta berrizalekeriarik gabekoa. Hain zuzen ere, ahozko euskararen kideko idazkera horri esker irabazi zuen Artetxek euskal irakurleen oniritzia eta jarraipen ugaria.

Gaztelaniaz idatzi zituen artikulua, berriz, norabidea erakusten duen iparrorratz gisa ziren haren erdal irakurle ugarirentzat: gizalege edo jokabide zuzena erakusteko modukoak. Halakoxeak ziren, izan ere, Artetxeren idazkiak: prestuak, zintzoak eta goiargiak.

Ugari dira Artetxek idatzitako liburuak. Ugaritasun horrek badu, ordea, bere batasun-ardatza: egileak Euskal Herriari zion maitasun betea. Izenburuen zerrenda dugu lekuko: *Una inquietud y cuatro preguntas, San Ignacio de Loyola, Elcano, Urdaneta, Mi Guipúzcoa, Legazpi, Caminando, Mi viaje diario, San Francisco Javier, Lope de Aguirre: traidor, La paz de mi lámpara, Vida de Jesús, ¡Portar bien!, Saint-Cyran, Cuatro relatos, Camino y horizonte, Lavigerie, Siluetas y recuerdos, Rectificaciones y añadidos, Discusión en Bidartea, Canto a Marichu, El abrazo de los muertos, El gran asombro, Gizonak* (euskarazko bakarra) eta *Un vasco en la postguerra*. >

Hil aurretxoan (1970ean) argitara zioten *El abrazo de los muertos* delako bere liburua jotzen zuen Artetxek bere idazlan nagusitzat. Egilea gogozkontra gerran ibili zen bitarteko (1936–1939) haren egunerokoa da liburu hori. Beste zerrenda luze horretako azkenekoa ere, *Un vasco en la postguerra* (1939–1971) delakoa ere, egilearen egunerokoa da: zentsura zela-eta, periodikoan idatzi ezin zituen hainbat albiste eta iritzi aurkitzen da bertan. Hortxe ezagun da Joxe Artetxe: gizon zintzoa, intelektual jasoa, kristau oso arduratsua, guraso zabala eta gizalegeko euskaldun jatorra.

Eguneroko horretatik ateratako apur batzuk baino ez ditut azalduko, labur beharrez: alegia, *Un vasco en la postguerra* liburutik hartutako apurrak.

Hasteko, politikaren alorreko aipamen apurrak. Hona:

(1947-IX-13) Eraso gogorra egin digute Radio Euzkadi klandestinitik: Patxi Unzurrunzaga (Itxaropena argialetxekoa) eta biok traido-

- reak omen gara. Zergatik? Ba, hemen, Zarautzen, oporretan zegoen *Director General de Prensa y Propaganda* bisitatzera joan ginelako. Bisita emankorra; euskarazko hiru liburu argitaratzeko baimena lortu baikenuen: Orixeren *Euskaldunak*, Salvatore Mitxelenaren *Arantzazuko poema*, eta euskal hiztegi bat. Sekulako garaipena da baimenok lortu izana; halere, ezjakinean edo, traidoretzat salatzen gaituzte: ni, batez ere.
- (1952-IV-27) Emazteak esan dit oker zegoela: gerra hasi zenean jakin izan balu frankistak nolakoak ziren, ez zidala galeraziko ihes egitea.
- (1953-XII-20) *Euzkadi* egunkariko kazetari, lankide eta langileen arte-tiko hemeretzi fusilatu zituzten; ni neu izan nintekoen hogeigarrena.
- (1956-III-26) Mafarroan, ehiztari bat epaitu berri dute bi untxi hiltzeagatik baimenik gabe. Auziperatuak, harrituta, zera esan omen du: hogeit urte lehenago, ehun eta hirurogeita hamabi pertsona hil zituela, bina duro kobratuz, eta orduan inork ez ziola kargu hartu.
- (1958-IX-19) Erregimen frankista hau da "azkar aberastu, bizkor aberastu" beharrekoena.
- (1960-IV-12) Hiru anonimo hartu ditut "separatista vasco" omen naizelako. Egun berean hartu dudana *Eusko Deya* aldizkariak, berriz, galdetzen du ea zenbat ordaindu didan Francok *Saint Cyran* liburua idazteagatik.
- (1962-VI-1) Usteltzearen ondorioak. Arratoiak itsasontzitik ihes. Egokiera bila dabilen jendea. Franco diktadorea, etsita, hil ondoren ere agindu nahirik.
- (1964-III-21) Egia adierazi ezinaren itolarria eta tristura!
- (1965-III-22) Beldurra alde guztietan. Beldurra da nagusi. Beldurrari esker dirau frankismoak; beldurra du armarik gogorrena eta eraginkorrena.
- (1966-VI-23) Kaleko berriak oso bestelakoak dira periodikoetakoen aldean. Kanean ez da torturarena beste konturik entzuten: aztar-narik uzten ez duen tortura da hizpide nagusia.
- (1966-X-8) Ezkutuko argitalpen bat hartu dut. Greba dela eta, Eibarren eta Zumarragan atxilotutakoei egindako tortura izugarrien

berri dakar. Baita poliziak Eibarren omen dituen hogeita hamalau salatariren zerrenda ere. Zer gertatu behar du hemen?

(1970-XII-28) Burgosko auzia dela eta, errepresio basatia dator. Ezin dut idatzi. Eskua dar-dar daukat.

Ondoren, erlijioaren alorreko aipamen apurrak. Hona:

(1952-V-5) Lope delako eskulturagile tolosarrak urtean behin baka-
rrik betetzen omen ditu Elizarekikoak. Baina ahaleginak egiten
ditu bere adiskideek ere beste horrenbeste, bederen, egin deza-
ten. Oraindik orain, bederatzi lagun eraman ditu aitortzera; baita
hauek aitortza egin ere, aspaldiko partez. Zoritxarrez, apaizak era
txarrean hartu omen zituen denak.

(1955-XI-6) Baserritar batek ederki asko laburtu du hemengo berri:
Egia, belauniko; gezurra, zutik; lapur guztiak, libre.

(1956-I-24) Espainiako erlijioa eta politika nahaste honek jainkoga-
beko belaunaldiak dakartza. Horixe ari dira egiten erlijio-irakas-
leak: ateoak ugaritzen.

(1956-VII-31) San Inazio hil zeneko laugarren mendeurrena dela eta,
Franco ere etorri da Loiolara. Militarrek eta poliziak bazter guztiak
hartuta daukate. Aita Santuak irratz hitz egin du. Bekatu ote da
euskaldun jaiotzea? Ez Aita Santuak ez beste inork ez du aipatu
ere egin San Inazioaren euskal izaera; ezta gipuzkoarra zenik ere!
Jendeak nahiago izan du Arantzazura joan.

(1959-II-21) Bizkaiko baserritar bat Gorbea mendira igotzen omen da
urtero, Bazko egunean, goizean goiz, gailurreko gurutzeari bere
bekatuak aitortzera. Ondoren, herrira jaitsi eta elizan betetzen du
Bazkotan jaunartzeko agindua. Garai bateko apaizekin, bai, aitor-
tzen omen zen; oraingoekin, ez du nahi.

(1959-IX-12) Espainiako oraingo eliz agintari nagusiak fedegalduek edo
apostatak iruditzen zaizkit. Askok omen gara, horretan, iritzi be-
rekoak.

(1965-IV-16) Hondarribiko sakristian utzikeria: apaiz batzuk —kanpo-
tarrak— balkoitik begira Ostiral Santuko prozesioari... Herria
bera apaiz-jendea baino sinistunago eta erlijiosoago ote?

(1969-II-28) Simon Arrieta hil berria da. Bergarako margolari horrek
ba omen zuen ohitura maitagarri bat: Santu Guztieneko bezpe-

- ran kanposantuko hilobi pobre eta utzietako gurutzeak pinturaz ederki apaintzekoa.
- (1970-XII-21) Aita Santuak ez ditu hartu nahi izan Burgosko auzian epaitzen ari diren abertzaleen ahaideak. Herria haserre dago Aita Santuaren aurka. Geratuko ote zaigu ezer Francok hondatu gabekorik?
- (1970-XII-31) Erakundeen ezkutuko terrorismoa. Nori zor ote 1970eko abendu sataniko hau?
- J. Artetxek berak barkatuz ospatzen omen zuen Ostegun Santua: orri osoak kenduz, urtero, bere egunerokotik.
- Azkenik, literaturaren alorreko aipamen apurrak. Hona:
- (1943) *Norbait*ek hala nahita, hil egin zuten Lauaxeta. *Norbait* horrek, agi danean, bere buruaz beste egin berri du.
- (1951-VIII-26) Oteiza, nire gisa, haserrekorra da. Ukabilka bezala hitz egiten du. Ez zaio zeresan mamitsurik falta.
- (1955-III-29) Aita Onaindiak argitaratutako *Mila euskal olerki eder* liburua bahituz dabil polizia; eta, bidenabar, liburu horren erosleen berri galdetzen diete saltzaileei.
- (1957-XII-27) "La Gaceta del Norte" periodikoak itzuli egin dit, argitara gabe, Orixe Euskaltzaindian sartu berriari buruz idatzi nuen artikulua. Bilbo da, nire ustez, denetan hiririk antiliberalena. Errepublikara garaian, "Euzkadi" periodikoan ere ez ziguten onartzen R. M. Azkue apaiz euskaltzale bikainaren izena aipatu ere egitearik.
- (1960-IV-7) Txorogaizto gazte mota batek oso gogoko ditu Pio Barojaren idazlanak: buruz ikasten dituzte; batez ere, pasarterik okerrrenak.
- (1964-VI-28) Pio Baroja benetako gizona zen: bostekoa eman zidan moduan antz eman nion.
- (1965-VII-13) Unamuno? Txotxolo galanta, Unamuno, Francoren su-blebazioaz gero!
- (1960-VIII-21) Hemingway prest dago sosik kobratu gabe geratzeko *Agurea eta itsasoa* euskaraz argitaratzeagatik. Ez omen du ezer euskaldunon kontra. Horixe esan dit baimen eske joan natzaionean.

(1965-VII-3) Aita Donostia zenaren jaiotetxean oroigarri jartzea. Agintariak ere bertan ziren; baita poliziak eta zelatariak ere. Totalitarismoa beti zelatari; baita susmagarria hil ondoren ere! Omenaldira bildutako jendeak, halere, gure ereserki apal eta unibertetsala kantatu genuen: *Gernikako Arbola*.

Horraino *Un vasco en la postguerra* liburutik hartutako apurrak, Artetxeren izaeraren eta pentsaeraren adierazgarri. Hemendik aurrera irakurriko dizkizuedanak ere Artetxeren ispilu dira: oraingoan, ordea, artikulu zatiak irakurriko dizkizuet, Artetxek euskaraz idatzitako artikuluetatik neuk aukeratu eta egokitua.

Esan bezala, *Zeruko Argiaren* ia sortze beretik idatzi zuen bertan, astero-astero; baina beste aldizkari batzuetan ere parte hartu zuen. Euskaraz idatzitakoetatik, 153 artikulu iritsi dira nire eskuetara: 133 *Zeruko Argian* argitaratuak dira; beste 16, *Arantzazu* aldizkarian; eta gainerako lauak *Hoja del Lunes* periodikoan.

Kazetaritza dela eta, oso jakingarria da Joxe Artetxe aitzindari gertatu izana, besteak beste, kazetari-estiloaren korapiloak ezagutzen eta askatzen. Kazetariarentzat funtsezkoa da *lead* delako estiloaz jabetzea: alegia, albistearen mamia atariko lerrokadan laburki adieraztea eta, ondoren, gertaeraren gainontzeko jakingarririk garrantzitsuenak "iraulitako piramidea" deritzon egituraren arabera antolaturik kontatzea; horrela eginez gero, kontakizuna arina baita, eta albiste, ulergarria.

Joxe Artetxek garbi asko utzi zuen kontu hori duela denbora asko: 1969an. Eta data hori oso garrantzitsua da, kazetaritzako irakasle Txema Ramirez de La Pisciñak dioenez; izan ere, 1969an, artean ez baitzegoen ezer argitaraturik kontu horietaz: Espainian ez, behintzat.

Hona zer zioen gai horretaz Artetxek, euskara egoki askoan. Entzun:

«Egunkari batek, astekari batek, bere idazteknika berezia dauka: periodiko bat, asteroko bat, ez da liburu bat. Liburu bat hartu, ireki, irakurri eta azkenean, nekatu edo aspertu garenean, utzi egiten dugu, beste batean jarraitzeko asmoz. Liburu batetik oharrak hartzen ditugu sarritan. Liburua gorde egiten dugu.

Periodikoari, berriz, azkartxo batean ematen diogu pasada. Aldizkariako artikulu bat, luze irizita, beste baterako uzten baldin

badugu, ziur egon artikulu hori ez dugula behin ere irakurriko. Artikuluak aurren-aurreneko lerroetan behar du bere gakoak.»
[Joxe Artetxe, "Artikuluak", *Zeruko Argia*, 1969-I-5]

Ondoren, Artetxek kazetaritzako hizkeraz zioena irakurriko dizuet. Entzun:

«Kazetaritzak hizkera berezia behar du izan, eta hori gaur egunean ez dakienak ez du balio komunikabideetan idazteko. Neu aurrena naizela, ez dezagula jendea aspertu. Ez dezagula erabili inork ulertu ezinezko hizkuntza.

Euskarazko idazlerik arloteena neu naiz; baina, neure arlotetasunean, jendearen oso parean jarri nahi nuke. Irakurleek ulertzen ez badidate, alfer-alferrik ari naiz.»

[Joxe Artetxe, "Artikuluak", *Zeruko Argia*, 1969-I-5]

Entzun orain Artetxek nola uztartzen zituen kazetaria, albistea eta egia. Hona:

«Kazetari izateak bi alderdi ditu: albistea eta egia; egriarik gabe ez baitago kazetaririk. Gizonak, gizasemeak nahiz emakumeak, egia jakin nahi du: gizonari egia zor zaio, baina egiak etsai asko ditu gaur egun.

Zein dira, bada, egiaren etsaiak? Hauexek dira: gezurrezko irudi-penak, isil-ezkutaketa eta estalketa, azpikeria, gezurra, beldur-tarazi nahia, zitalkeria, hitzaldaketa, iraina, bidegabekeria, gezur-hitzen sinespena, harrigarrikeria, grina, eztabaida, funts gabezia edo fundamenturik eza eta, azkenik, askatasunik eza. Ez da txantxetako zerrenda.»

[Joxe Artetxe, "Kazetariak", *Zeruko Argia*, 1969-IV-27]

Ondoren irakurriko dizuet Artetxek nola ikusten zuen kazetaria bera. Entzun:

«Zuzentasunarengan itxaropen oso-osoa behar du kazetariak. Baita gizonen arteko senidetasun eta adiskidetasunean uste bete-betea ere. Gizadi osoaren batasunean ere bai.

Kazetariaren hitzak zuzenbidezkoa behar du izan: hitz sendo eta osasungarria, gizonaren bihotza bizkortzeko modukoa.

Ez da lantegi erraza baldintza horiek denak elkarraraztea. Ez, ezta gutxiagorik ere. Kazetariaren lanbidea munduko zailenetakoa dela esango genuke; zailena ez bada, behintzat.»

[Joxe Artetxe, "Kazetariak", *Zeruko Argia*, 1969-IV-27]

Artetxeren ikuspegi horiek ingenuo samarrak dira, noski, gure arteko gehienontzat: tolesik gabeko pertsonaren hitzak dira. Artetxek bazekien hori, bazekien inozotzat hartuko zutela; baina, hala ere, nahiago izan zuen egiaren xalotasuna. Hona zer idatzi zuen horretaz:

«La ingenuidad preservó del asco mi juventud y diría que hasta mi vida. Jamás envejecí en el espíritu, porque nunca dejé de ser ingenuo. Jamás curé y creo que ya tampoco curaré de mi ingenuidad mientras viva. Pero el ingenuo ve a través de la doblez.»

[Joxe Artetxe, *Canto a Marichu*, 512. or.]

Zeruko Argiako artikuluetara itzuliz, entzun orain Artetxek zioena idazlanetan erabili beharreko estiloaz. Hona:

«Noizik behinka lan guztiak erabat utzi eta kanpoan ibiltzea komeni izaten da. Gauzak beste era batera ikusten dira bueltan: beste argi batez. Beste argi horri esker ikusi dut gure idazle askotxoren estilo iluna.

Nik esango nuke zenbait idazle ahalegindu egiten dela langa eta hesi gehiegi jartzen irakurlearen aurrean. Gure arteko askotxori iruditzen zaio idaztea gramatikaz bakarrik jardutea dela: gramatika hutsa erabiltzea. Baina idazlanak gizonari eskainia behar du izan, gizonaren neurrira egina oso-osoan.

Joan deneko batean, gizaseme euskaldun bat etorri zitzaidan nire liburu erosi berri batekin. Eskaintza eta sinadura nahi zituen. Idatzi nion eskaintza hori, bihozkor, ahal izan nuen euskara errazenean, nire ustez. Irakurri zuen eta baita galdetu ere:

—Zer esan nahi du hitz honek?

Ez zen, bada, zaila nik ipinitakoa; ohizkoa, nire iritziz. Baina irakurle haren oharpenak asko pentsarazi zidan.

Nire euskarazko artikulua zenbait, bidali baino lehenago, emazteari irakurtzen dizkiot. Nire emazteak, nik bezalaxe, herri-herriko euskara daki: txikitik ikasitakoa. Azkar asko esaten dit zer edo zer ulertu ez duenean (*entenditu* esaten dit berak beti):

—Neri ez esan beste hitz klase hoiak...

Bai. Idaztean, ahal dugun errazena behar genuke beti. Jendeari ahal dudan argien hitz egiteko naiz idazle. Langarik ipini gabe. Hesiрик jarri gabe. Aldaparik ez; baizik ordeka, bide garbian.»

[Joxe Artetxe, "Langak", *Zeruko Argia*, 1970–VI–14]

Burutazio gogor askoak ere plazaratu zituen Artetxek bere artikuluetan. Hona haietako bat:

«Ez da erraza esaten nik esan nahi nukeena. Egunak dira buruan darabillkidala. Horrelakoa idazleari gertatzen zaionean, langelan sartu, mahai aurrean eseri, mahai gaineko argia piztu eta luma hartzea adinakorik ez da. Horixe egin dut nik une honetan-txe, eta begira zer bururatu zaidan berehalaxe:

Euskaldunok galtzaileen alde jokatu dugu hiru gerratetan [bi karlistadetan eta gerra zibilean]. Joanak joan. Jainkoak inondik ere ez dezala nahi, baina... laugarren gerratea piztuko balitz, zeinen alde jokatu behar genuke? Berrito ere, galtzaileen alde?»
[Joxe Artetxe, "Zeinen alde?", *Zeruko Argia*, 1970-XII-28]

Ondoren irakurriko dizuedan hau ere ez da makala. Entzun:

«Iruditzen zait guk, euskaldunok, bi ardua mota bakarrik erabiltzen ditugula odol hotzean: dirubideak eta joko-apustuak. Bi gai horietan ez dugu inondiko irakasle beharrik: apustueta eta negoziotetan geu gara nahiko maisu-maistra guztientzat.

Herri-ardurarekin, ordea, ez zaigu berdin gertatzen (eta herri-ardura diot "politika" hitza ez zaidalako batere gustatzen). Herri-ardurarako ez daukagu abildaderik, edo oso gutxi. Traketsak gara erabat.

Beste gauza bat ere gertatzen zaigu, gainera: euskaldunok aurpegi bat besterik ez daukagula eta aurpegi bakar horrekin irribarre egiten ez dakigula. Eta behar denean, zergatik ez egin irribarre? Eta horrekin ez dut esan nahi gizonak, gizasemeak nahiz emakumeak, norik bere nortasuna edo duintasuna galdu behar duenik.»

[Joxe Artetxe, "Zubiak", *Zeruko Argia*, 1969-XI-30]

Artetxek berak ere ez zuen ahaztu handirik, idazle zen partetik, bere lana odol hotzean egiteko. Entzun:

«<Zer da idaztea? Idazle izatea diot: hau da, idatziaren idatziz zer edo zer asmatzea, sortaraztea.

Liburu hasi berria daukat esku artean, eta ezin inola ere utzi esku artetik. Horrela beharko du izan, buka dezadan arteraino.

Esango litzateke idazleak esku-eskuan daramala sortzen ari den liburuaren hari guztia. Bai, zera! Toki onean zegok! Ez da hori gertatzen, ezta gutxiagorik ere. Idazleak liburu gidaldu ordez,

liburuak berak darama derrigorrez idazlea bete-betean. Ez al da harrigarria?

Badirudi idazlea beste baten esanetara ari dela lanean oso-osorik. Beste batek barruko isilean esaten dizkionak entzun beharren beharra! Idazleak inondik ere ez dauka nahi duen bidea hartzerik. Liburuak darabil bere bidetik, eta idazleak ez dauka irteterik bide horretatik.

Zer da idazle izatea?, berriro galdetzen dut.

Galdera latza, benetan. Ez da erraza erantzuten.»

[Joxe Artetxe, "Idazle izatea", *Zeruko Argia*, 1968–XI–30]

«Liburu-idazleak behin ere ez dauka bakerik: bihotza beti irakiten. Liburu bakoitza bihotz eta hezur mami-mamitik sortzen baitzaio. Liburu berri bakoitzak bihotza urratu eta bere bizitzaren sustraiak desegiten dizkiola esango litzateke.

Gauetz, idazlea lotan dagoela ere, gogoia lanean ari zailo etengabe. Zenbat aldiz ez ote du esnatzen bat-batean, egun-argiz askatu ezinezko mataza-korapiloa zeharo argitu zaiolako? Hain zuzen eta garbi, gainera!

Beti berekiko ari da idazlea. Kordegabetuta dabilela esango litzateke. Familiako zaratak ere ez du ateratzen bere lozorrotik:

—Baina, gizona! Mututu egin al zara? Beti horrela behar al dugu? Non zaude?

Halako batean, horra hor, azkenik, bere liburuja jendearen eskueran. Lasaitu al da? Bai, zera! Ezkutatu duen karpeta zaharrrak laster egingo dio toki karpeta erosi berriari. Beste urte beteko, edo urte t'erdiko, edo bi edo hiru urteko lanari hasiera eman dio. Berriro ere entzun beharko du irribarrezko purrustada maitekorra:

—Nik asmau nuen, bai, nik, zurekin ezkontute!»

[Joxe Artetxe, "Liburuak", *Zeruko Argia*, 1968–XII–11]

Artetxeren emazte Maritxuren irtenaldi horiek oso politak dira, eta denetan politena, nire gusturako, erdaraz (eta maitasunez) esaten zion haxe: «¡Qué hombre más tristésimo!».

Maritxuk asko zekien. Hona zer zioen Artetxek:

«Las mujeres tienen razones que los hombres no alcanzamos. Las mujeres se hallan en la otra orilla. Hay algo en la mujer que

escapa a todo análisis.»

[Joxe Artetxe, *Canto a Marichu*, 506. or.]

«Marichu, al revés que yo, no era nada platónica. Las mujeres no pueden ser platónicas. Marichu iba en derechura a lo concreto.»

[Joxe Artetxe, *Canto a Marichu*, 505. or.]

Artetxeri zuzen-zuzenean esana izango zion Maritxuk, biak gazte asko zirela: «Zu, nerekin! iTú, chiquito, conmigo! Zu, nerekin!». Hala xe izan ere, eta betiko; nahiz eta gero maitasunez esan: «¡Qué hombre más tristésimo!». «¡Qué hombre más tristésimo!», alajaina!; baina huraxe nahi bere gizontzat: «Zu, nerekin!».

Artetxek berak ere, idazle-bokazio nabarmena izaki eta, idazle izatea erabaki zuen; nahiz eta bizimodu gogorra eta tristura jaso ordainetan. Hona zer erantzun zion aholku eskatu zion mutil gazte bati. Entzun:

«—Idazle izan nahi nuke. Zerbait esaidazu! —dio karta batean mutil gazte batek.

Beraz, idazle izan nahi duzu? Bokazioa behar, horretarako: bokazio argia, batere dudarik gabekoa.

Aurren-aurrenetik esan behar dizut ez duzula asko irabaziko ofizio horrekin. Musu-truke lana franko egin beharreko ofizioa. Askoz gehiago irabaziko duzu beste edozer eginahaletan.

Bestalde, gure artean askotan gertatzen dena: txotxolotzat hartuko zaituzte sarritan. Gainera, sentimendu eta samurtasunezko gizona izango zara, noski, eta makina bat aldiz mespretxuak aditu edo nabarituko dituzu inguruan.

Politikarekin batere konpromisorik gabekoa behar duzu. Idazle izan nahia eta politika ezin daitezke uztartu. Zeure buruaren jabe behar duzu. Hobeto esateko: zeure buruarekin bakarrik konprometitu.

Bide luzea, oso, idazlearena: bizi zaren arte, azken ordura arte-rainokoa. Bide latza. Bide hori bakar-bakarrik beharko duzu ibili, zeure kontzientzia lagun duzula.

Oso lagun gutxi izango duzu.

Itxuragabekeriak entzungo dituzu makina bat. Zenbaitek erotzat ere hartuko zaituzte. Bekaltzaren, inbidiazen hozkadak ere bai,

sarritan; ez baitago bekaitza disimulatzerik: bekaiztiak aurpegi-aurpegian azaltzen du inbidia.

Eta —hau bai dela zaila ikasten— besteren esanari, kasu gutxi. Zuk, idazle izan nahi duzun gazte horrek, jarrai beti. Jarrai, bakar-bakarrik.

Ordain-sari atseginak, pozaldiak ere izango dituzu noizbehinka. Gutxien uste duzunean agertuko zaizkizu oso adiskide apartak, gutxien uste duzun lekutik. Idazleak ez baitaki bere lanak noraino iritsiko diren. Horregatik, bere erantzukizun ikaragarria.»

[Joxe Artetxe, "Idazle izan nahi", *Zeruko Argia*, 1970-I-18]

Erantzukizuna ez ezik, zorigaitza ere ikaragarria izan zuen Artetxek, berak idatzi zuenez. Entzun:

«Ondo dakit, ondo, zer den nire zorigaitzik latzena, euskal idazle naizen aldetik. Ez dut neure burua engainatzen, ezta inondik engainatu nahi ere.

Jakitun nago Euskal Herriari dagozkion berri guztien: alde bateko berriak eta bestekoak. Izan daitezkeen berririk tristeenak, alde batetik; entzun daitezkeen berri minenak, bestetik.

Baina ondo ikusten dut, ondo, zeharo eragotzita dauzkadala gai batzuk. Alde bateko arazoez hitz egiteko libertatea badut; beste aldekoak, berriz, isildu beharrean nago, ez dauzkat aipatzerik. Eragotzita daukat, aldizkarietan eta egunkarietan behintzat, zenbait arazo aipatzea. Horra egi-egia edo, orain esaten duten bezala, horra hor errealitatea.

Badakit gazte askok —eta gazte ez den askok ere bai— nitaz esan dezakeela:

—Hor ari duk hori, amorratuta, ahal duen guztietan gure kontra. Beste aldeko gertakari asko ere bazekik horrek. Zergatik isiltzen ditik? Zergatik ez dik halakorik erabiltzen?

Nik, ordea, galdera hauxe besterik ez dut egin nahi: alde bateko gaiak debekatuta dauzkadalako, beste aldekoak aipatzerik ez al daukat? Isildu egin behar al dut zeharo erabat? Idazluma behinbetirako baztertu? Gaitza nabarmen agertu nire begi aurrean eta, begiak itxi egin behar al ditut? Nahaspila beldurgarri honetan, ezin al ditzaket jakinarazi deabrukeriaren giro epeleko ekintza zitalak? Osoa esateko askatasunik ez dudalako, erdia, bederik, agertzeko eskubiderik ere ez al dut?

Horra nire zorigaitza! Baina, *Ezina ez da pekatu.*»

[Joxe Artetxe, "Nere zorigaitza", *Zeruko Argia*, 1970-IX-27]

Bukatzeko, Artetxeren irudia nire hitzaldiaren ispilu honetan erakusten bukatzeko, Artetxek beste euskal idazle haundi bat aipatuz idatzi zuen artikulua zati bat irakurriko dut: Nikolas Ormaetxea "Orixe" aipatuz idatzi zuen artikulua zati bat. Aldez aurretik, ordea, gertakari bat gogorarazi nahi dut, ondoren datorrenaren mamia ondo ulertzeko oso kontuan hartu beharrekoa gertakari bat. Lehen ere azaldu dut, eta orain berriro: alegia, 1947an, frankismoak oso zentsura gogorra indarrean zuen garaian, euskarazko ezer argitaratzetik ez zegoen garaian, Artetxek baimena lortu zuela Orixeren *Euskaldunak* poema erraldoi bikaina argitaratzeko; baina, baimen hori lortu ahal izateko, buruzagi frankista bat bisitatzera joan behar izan zuen eta, horregatik, traidoretzat salatu zuten Artetxe. Garai hartan Venezuelan exiliaturik bizi zen Orixek, gogoz kontrako herbestean, eta dirudienez Orixek berak ere traidoretzat-edo hartu zuen Artetxe.

Horra zer esker gaizto eman zioten Artetxeri, eta hona zer idatzi zuen Artetxek handik ia hogei urtera. Entzun:

«Zenbat urte ote dira Orixek bere *Euskaldunak* poemaren atal batzuk irakurri zizkidala? Artean bukatzeke zeukan. Gerra aurea zen. Larunbat arratsalde batean, Orixek berak niri hots eginda, paseatzera irten ginen biok, eta ibilaldi hartan bizpahiru atal irakurri zizkidan.

Nik, orduan, ez nuen asko pentsatzen handik urte batzuetara neronek atera beharko nituela Orixeren paperak Diputazioko ganbaran iltzez ondo josita zeuden kutxetatik. *Euskaldunak* argitaratzeko baimena iritsi berria genuen; baina atal bat falta liburua osatzeko. Hala ere, atal hori ere agertu zen, horratik! Hura poza nirea!

Liburua argitara aurreko lehenengo propaganda-artikulua neuk idatzi nuen: Donostiako periodiko batean atera zen. Baina nik ahal dakit nolako karta egin zion Orixek zuzendariari! Orixek kanpoan zen eta ez zen konturatzen nola genbiltzan hemen. Niri ere egin zidan halamoduzko karta: mina, oso. Ez zen konforme nire artikuluekin: alegia, nik berari ezarri nizkion hitzak ez zirela egiazkoak. Baina egiazko hitzak ziren, izan ere; gerra aurreko larunbat arratsalde hartan apuntatu egin bainituen, askotan ohi dudan bezala.

Dena dela, *Euskaldunak* poema argitaratu zen. Baita Orixe itzuli ere, noizbait, gure artera. Lagun taldetxo batek Olaberriko goiko ostatuan egin genion harrera. Baina, nireztat behintzat, egun gogoangarria izan zen hura: nirekin eraso zion Orixe. Oso hitz mingarriak esan zizkidan. Ez zen isildu.

Gerora heldu zen haren Euskaltzaindirako sarrera, Orixeren omenaldi-eguna. Han nintzen, Leitzako udaletxean, beste askorekin batera. Hitzaldiak bukatu zirenean, Orixerengana joan nintzen. Begiak [malkoz] bete-bete egin zitzaizkion ni ikustean. Ez zaizkit behin ere ahaztuko haren hitzak:

—Orixe zital hau besarkatzera etorri egin zara, horratiki!

Ez nion ezer erantzun; baina besarkada bihozkor batean lotu ginen biok elkarri.»

[Joxe Artetxe, "Orixe", *Zeruko Argia*, 1966-II-13]

Artetxe hemen balitz orain, aurrez aurre baneuka, besarkada gozo askoa emango nioke nik ere berari.

Agur t'erdi zuri, Joxe Artetxe! Agur eta ohore!